

Europa, alaitasunetik gutxi

Donostiako Konstituzio Plazan Beethovenen bederatzigarren Sinfoniari (*Alaitasunaren oda*) egindako txistualdia, bistan da ez zela maisu handiaren aurkakoa, bere himnoa bahitu duen Europar Batasunaren aurka baizik. Nago, Beethovenek burua altxatuko balu gauza bera egingo lukeela. Hirugarren Sinfonia, estreinakoz, Napoleoni eskaini zion miresmenez, hark sinbolizatzen zuen iraultza globalak eta bera sortzen ari zenak bat egiten zutelako. Alabaina, Napoleonek bere burua enperadore egin zuenean Beethoven haserre bizian jarri zen, Napoleon izena ezabatu zuen ez zuelako maite despotarik, ez zaharrik ez berririk. Egungo Europa despota zaharrez eta berriz gainezka dugu, nire uste apalean, eta gainera oso gutxi ilustratuak.

Ezin ukatu, 1950ean Ikatz eta Altzairuaren hitzarmenarekin sei estatuk (Frantzia, Alemania, Italia, Belgika, Luxenburgo eta Herbehereak) abiatutako bidea, I. eta II. Mundu Gerrek eragin zituzten estatuekiko kompetentzia inperialistak gainditzeko aurrerapausoa izan zela. Gainera, gerren triskantzek eragindako eraikuntza lanen baitan langile mugimenduaren eta ezker sozialdemokraten indarrari esker eraikitzen ari zen ongizate-estatuaren ereduak asko



Joxe Iriarte *Bikila*

IDAZLEA

Egungo Europa despota zaharrez eta berriz gainezka dugu, nire uste apalean. Eta gainera oso gutxi ilustratuak

lagundu zuen europartasun aurrerakoia gauzatzeko, nolabait, AEBren modelo gordinetik bereizteko gai izango zena eta bidenabar Gerra Hotzaren testuinguruan Sobiet Batasunari aurre egin lekiokena.

Harrez geroztik, atzeraka goaz. Europaren komunitatearen eta batasunarena ondorengo hedapena, muturreko neoliberalismoan (Alemaniaren nagu-

sitasunaren menpean) hitzarmen eta dekretuetan eraikitzen joan da (Maastricht, Lisboa eta abar) ekonomiaren eta monetaren batasunean oinarrituz.

Egungo Europak (ez nahiko genukeena) gutxi du giza-eskubideetan, justizian eta demokrazian oinarrituriko adostasunetik eta gehiegi inposiziotik, diskriminaziotik, esplotaziotik eta xenofobiatik. Gainera, Europa iruzur galanta da kulturaren ikuspegitik (baita kultur hiria izendatzen dutenean, negozio eta espekulazioari bide emanez, benetako kulturari bide eman ordez).

Europar aginduen makila Troikaren eskuetan dago. Inork hautatu ez duen erakunde horrek bahitu egin dizkigu –hiritarrei eta herriei– etorkizuna erabakitzeko eskubidea eta ahalmena. Horra hor, Grezian gertatutakoaren benetako irakaspena. Harrigarria egin zait A-20ko hauteskundeetan ia inork ez aipatzea gure gainetik dauden botere faktiko horien zama, (Europako komisiok jada exijitu dio espainiar gobernuari 11.000 milioi euroko jaitsiera gastu sozialetan), nola edo hala astindu beharko duguna Europa berri bat nahi badugu.

Egungo Europa, soil-soilik kapitalarentzat da hesi gabeko eremu librea. Gainerakoak, berriz, lubakiz eta hesiz beteriko mugetan itota gabiltza. ■

ARABAKO BERTSO KUADRILLA ARTEKO A
2016

LAJADAKO TOPAKETA
12:00etan
BERTSO-TXALAPARTA POTEOA Araiako Aratz tabernatik hasita
14:30ean **BAZKARIA** (12€) Zalduondoko txokoa
Izena emateko 609258267, 608088648
16:30ean **BERTSO-BOLO** Zalduondoko bolatokian
www.bertsozale.eus/araba

BOSTIBAKETA LEGUTIO

LUPIZARRATEKO TXERRONAK ZALDUONDO

LAJADAKO SORGINETXE

arabako bertsozale elkartea | artepán | Vital | LARGIA | LABORAL